

KRISTAU MUNDUKO GOI-GOIKO IZARRAK

Nik ez dakit zer gertatzen jaken besteei Euskalerritik kanpora doazanian. Baiña ni neuri beintzat itzelezko poza emoten deuste bertoko gauzak eta goraberak ondo aipatzen dabezarian. Ta pena txarto berba egiten dabenian. Beste orrenbeste gertatu jat aurtengo udan be. Baiña oraingoan, poza ta zoriona izan dira nagusi!

Frantziatik nabillenan, beti be, bertako bi egunkari izan jataz atseginenak. Gizarte mailan, Le Monde. Eta kirol mailan, L'Equipe. Biak, bakotxa bere arloan, Europan zear, naiko ezagunak ditugu.

Aurtengo uztailan, Le Monde egunkariak amabi artikulu eder argitaratu ditu izenburu orokor onegaz: "Les génies du christianisme". Amabi egunean jarraian, kristau munduan itzelezko eragina izan dauan pertsonaiaren bat edo gertakizunen bat azalduz.

Artikulu guztiak Henri Tincq historialariak izenpetuta datoz. Ta ez egunkariaren baztertxo baten edo. Erdiko bi orriak osorik beteta. Beti be, egunkariaren azalean letra aundiekaz iragarrita! Ona emen, idazlan orreen amabi tituluak: 1. Nazareteko Jesus, 2. Paulo, 3. Agustin, 4. Sortaldeko kristauak, 5. Kurutzadak, 6. Asisko Frantzizko, 7. Inkisizioa, 8. Loiolako

Iñazio ta Bartolome de Las Casas, 9. Lutero, 10. Avilako Teresa, 11. Lamennais eta Renan, 12. Ogeigarren Mendea.

Azkenengo kapitulu onetan, Bonhoeffer, Luther King, Oscar Romero, Desmond Tutu, Kalkutako Ama Teresa, Paulo VI.a eta Juan Pablo II.a azaltzen ditu.

Nire asmoa ez da artikulu bakotxaren laburpena egitea. Ezta gainbegiratze orokor bat egitea be. Gitxiago oraindino puntu bat edo bestea kritikatzeari. Bakarrik nai neukena da Iñazio ta Teresari buruz dakarrena zerbait azaltzea. Ta niri geien gustatu jatana azpimarratzea. Izan be, euskaldun karmeldarra nazanez, Iñazio ta Teresa oso biotzekoak ditut.

LOIOLAKO IÑAZIO

Zortzigarren artikulua Loiolako Iñaziori eta Bartolome de Las Casasi buruz idatzita dago. Ta euron ia orri erdi artzen dabezana bi erretratu eder dakaz. Iñaziorena Jacobino del Contek 1556. urtean egindakoa dogu. Ta Casasena, Sevillako Indietako Artxiboan aurkitzen dana. Uztailaren 22an argitaratu zan artikulua dogu berau.

Bion jokabidea oso ondo agertzen da Henri Tincq historialariaren idazlanean. Eurok ezagutzeko, bibliografia gisan, liburu oneek jarten ditu: Jean Lacouturen **Jésuites**, Seuil, 1991-1992. Alain Woodrowen **Les Jésuites**, Lattès, 1987. André Ravier, **Ignace de Loyola et l'art de la décision**, Bayard.Editions, 1998. Christian Duvergeren **La conversion des Indiens de Nouvelle Espagne**, Seuil, 1987. Francis Orhanten **Bartolome de Las Casas**, Ed. ouvrières, 1991.

Naiz eta Aita Bartolome de Las Casas be oso begikoa izan, nik neuk gure Ama Lurrak emon dauan gizonik aundienari buruz dakarrena zerbait aipatzea nai neuke. Gure santua Le Mondeko artikuluan, bein agertzen da bere jatorrizko izenagaz. Au da, Iñigo Lopez de Loiola bezela. Bestetan Loiolako Iñazio jarten deutso. Ta geienetan, "**le Basque**" (sic) deitzen

deutso. "**Basque**" beti be maiuskulaz jarriz. Orrek, beste gabe, asko esan gura dau.

Iñazioren bizitzaren laburpena polito eginda aurkitzen da. Ez nekian, Iñaziok Palestinatik itzuli bearra izan ebala frantzizkotarren erruz. Bere "Gogojardun" liburuari buruz, Roland Barthesen goralden eder au dakar: "Ez dago zetan jesuita edo katoliko edo kristau edo humanista izan bearrik liburu onetaz interesatzeko".

Idazlan onetako idea inportanteena auxe da: fedearen inkulturapena. Orretan Iñazio eta bere jesuitak aparteko gidarizat artzen ditu. Ezpatearen eta kurutzearen arteko "intzestua" arbiutuz, ebanjelizatzerako bide harriak sortzen ditue. Ez dago zetan birrindu bearrik erri bakotxaren sustriak, kristau azia ereiteko. Kristau fedea, Afrikan afrikarra, Asian asiarra, Amerikan amerikarra, Australian australiarra ta abar biurtu bear dau. Ta European europarra. Baiña, sarritan jaso danez, ez toki guztietan europar makurtu. Erri bakotxeko kulturen murgilduta erne bear dau kristau aziak.

Idea oneek, gaur egun, erraz onartzen dira. Baiña ez orduan. Eskerrak Iñaziori, jesuitak lan ederra bete izan dabe arlo orretan. Besteak beste, Xabierko Frantzisko ta Mateo Ricci ta Roberto Nobileren lan ikaragarriak gogoratzen deuskuz.

AVILAKO TERESA

Amargarren kapituluaren edukia Avilako Teresaren eta beste kristau mistikoen eragiña historian zear ditugu gai. Santa Teresaren irudi eder bat be badakar. G. L. Berninik egindakoa. Erromako Santa Maria della Vittoria eleizan aurkitzen dana. "Santa Teresaren Estasia" deritxona.

Artikulu au, uztailaren 23an agertu zan.

Mistikaren gaillurrean Avilako Teresa eta Juan Kurutzekoa ezezik Bingengo Hildegarda ere jarten ditu. Eleizaren barnean, asieratik gaurdaño be, mistikoen garrantzia ikaragarria azpima-

rratzen alegintzen da. Eleizak here erraietan daroa bere dimentsio mistikoa. Batez be, larriune latzetan mistikoen presentzia onuragarria ta, askotan, Eleizaren salbamena izan diranik, ezin ukatu.

Artikulu au egiteko, liburu oneek aipatzen ditu: Marcelle Auclairen **La Vie de Sainte Thérèse d'Avila** eta Olivier Clémenten **Histoire de la Sainteté et les fols-en-Christ** eta **Mystiques chrétiens des origins**. Ori bai, Santa Teresari buruz ari dancan, Marcelle Auclairi oso lotuta agertzen jaku artikuluaaren egilea.

Besteak beste, artikulu onetako bi idea nai neukez gogoratu. Bata, 21. mendea oraingoa baiño askotaz be erlijiosoagoa izango ei da. Ori baieztatzeke, André Malraux idazlari eta politikariaren eta Harvey Cox teologoaren eta Daniele Hervieu-Léger soziologoaren intuizioak azaltzen ditu.

Eta bestea, aro barriko kristauen ezaugarriak eta karakteristikak. Henri Tinqek idazten dauanez: "Kristau modernoaren sentimentu erlijioso eta etikoa baiño mistikoagoa izango da. Esperientzia pertsonalak geiago balioko dau koletibitateari lotuta egoteak baiño edo barruko zirrarak eta emozioak erlijiozko jakintzak baiño. Ta barneko abenturak konpromiso militanteak baiño.

Ez dau sinisten norberak experimentatzen dauana baiño. Ez da Eleizaren eta politikaren eta zientziaren edo medizinararen esanetara makurtzen. Alako errezelua eta mesfidantza sentitzen dau egia ofizialen aurrean".

Ortik ei doaz gure mistiko barriak edo...

Konklusioa

Noz izango ete dira gauza Espainiako eta Euskalerriko egunkariak Le Mondek bezela Kristau munduari buruz artikulu ederak argitaratzeko? Gauzak asko aldatu bearko dabez. Erlijio gaietan, lartxo diardu luzatzen gure egunkarien eklipse interesatuak! Baiña badot itxaropena. Horizonte barri orren leen xirrin-

KRISTAU MUNDUKO GOL-GOIKO IZARRAK

tak somatzen ete dodazan-eta nago. Bada orren premiñarik.
Eskerrak Frantzia ez dagola guretzako ain urrin noizean bein
bertatik bueltatxo bat emoteko. Bestela gureak egin dau!

Andoni Olea